

Deialdia eta Oinarriak

Zein da Lehiaketa honen HELBURUA?

Aurten Fakultatearen 50. urteurrena denez, gure Fakultatean ikertzen diren gaiak era dibulгатiboan poster batean azaltzea.

NORI doa zuzenduta?

Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikertzaile gazteei.

Parte hartzeko baldintzak

1. Parte hartzeko, sartu Zientzia eta Teknologia Fakultateko web orriko **Dibulgazio Zientifikoa** iragarkian eta izena emateko datu-orria bete.
2. Ikerkuntza talde bakoitzak gehienez bere ikerkuntza lana laburbiltzen duen poster batekin parte har dezake.
3. Posterrak pdf formatoan eginda egon beharko dira, A0 tamainan (bertikala).
4. Posterra hizkuntza ofizialetan egon beharko da (euskara edota gaztelera)

ZELAN entregatu dezakezu eta NOIZ arte da epea?

Posterrak **Dibulgazio Zientifikoa** estekan entregatuko dira. Entregatzeko epea **otsailak 8an** bukatuko da.

BALORATZEKO irizpideak eta prozesua:

Originaltasuna, mezua eta publikoari erraz azaltzeko ahalmena baloratuko dira.

Eskakizunak betetzen ez dituzten posterrak baztertzeko eskubidea izango du epaimahaiak.

EPEAK

Lehiaketan jarraituko den egutegia ondokoa izango da:

1. Partehartzaileek posterrak aurkezteko epea **otsailaren 8ra** artekoa izango da.
2. Posterrak Grand Sallen jarrita egongo dira **apirilak 1era** arte.
3. Epaimahaiak Bizkaia Aretoan jarriko diren 30 posterrak aukeratuko ditu.
4. Irabazlea **apirilak 11ko** ekitaldian saritua izango da.

Antolakuntzak epeak aldatzeko ahalmena dauka, beti ere, hori egiteko arrazoiak azalduz gero.

EPAIMAHAIA

Zientziaren dibulgazioan adituek osatuko dute epaimahaia.

SARIA

Apirilaren 11an Bizkaia Aretoan ospatuko den ekitaldian irabazleari EHUdendan gastatzeko 500 €ko bonoa emango zaio eta sekzio bakoitzeko bi poster hoberenak:

1. Biozientziak (Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra eta Bioteknologia)
2. Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa
3. Geologia
4. Matematika
5. Kimika eta Ingeniaritza Kimikoa

Hilabete batez Bilbon erakutsiko dira.

EPAITZA

Epaimahaiaren **epaitza apirilak 11an** argitaratuko da lehiaketako web orrian.